

Laurehundik gora farmazia gehiago ireki ahal izango dira Nafarroan lege berriarekin

Atzo onartu zuen Parlamentuak, gehiengo osoz, sektorearen liberalizazioa

Alberto Barandiaran / Iruñea

Nafarroan 440 farmazia berri ireki ahal izango dira datozen urteetan, Parlamentuak atzo onartu zuen foru legea indarrean jartzen denean. Legeak zehazten du 700 biztanletik gorako herri guztietan izango dela gutxienez botika bat, eta botikariek Osasunbidearekin zuzenean kontzertua egin ahal izango dutela.

CDN-RENAK ez ezik talde guztien botoekin onartutako testuak, praktikan, farmazien sektorearen liberalizazioa dakar, aldatu egiten du egun arte indarrean zegoen arautze sistema, eta *malgutasun planifikatuta* deitu izan den kontzeptua bereganatzen du. Hau da, pixkanakako aldaketak proposatzen ditu. Aitzindaria da, hautsi egiten baitu farmazialaritzak zuen gremiotasunarekin, eta Gobernuaren esku uzten du lokalen planifikazioa.

Farmazialariek oso kritikak, bidea irekitzen die lizentziatu berriei, baina kolokan utz litzake egungo botikatan lanean ari direnen lanpostuak, murriztuko baititu nabarmen betiko farmazien mozkinak. Hain zuzen ere farmazia berriak irekitzeko baldintzak, edo hauen planifikazioa izan dira puntu eztabaidatsuenak, eta aldaketa oso nabariak izan dituztenak Gobernuak aurkeztutako egitasmoarekiko

Informazioaren beharra

Talde guztiek Osasun Batzordean adostutako testuak zehazten du Osasun Departamentuak emango duela botika berria irekitzeko baimena, baina horretarako beteta egon beharko dira Osasun Oinarriko Zona guztien beharrak. Hau da, Nafarroan zona bat baldin badago farmaziarik gabe, ez da beste inon bulegoa zabaltzeko baimenik emango.

Orokorrean, 700 biztanletik gorako herrietan botika bat egongo da, baina gehienez ere ez da izango 700 biztanle bakoitzekiko bat baino



Iruñeko farmazia bat, atzo.

gehiago. Horrek esan nahi du egun dauden 308 farmaziak 750 izan litezkeela.

Zenbait ingurutan, hala ere, 1.400 biztanle bakoitzeko farmazia bat egongo da soilik. Hauek dira Allo, Antzin-Ameskua, Agoitz, Artaxoa, Auritz, Zarrakastelu, Izaba, Los Arcos, Orkoien, Zaraitzu, Doneztebe, Ultza-

ma eta Bilatortako oinarriko zonak.

Halaber, legeak zehazten du batzorde batek erabakiko dituela farmazia guztiekin akordioak, eta bertan egongo direla administrazioko ordezkariak, elkargoko partaideak eta baita farmaziak ez dituzten profesionalak ere.

Legeak zehazten du farma-

zia bakoitzean farmazialari batek egon behar duela, haietako bakoitzak ezin izango duela farmazia bat baino gehiago kudeatu, Gobernuak onartu ahal dituela botikinak nahikoa eskaintza ez dagoen inguruetan, eta baita aurreko zehaztapenen bat betetzen ez dutenendako isun eta zigor administratiboak ere.

CDN bakarrik gelditu zen berriro ere

JUAN CRUZ ALLIREN CDN taldea bakarrik gelditu zen beste behin legearen kontra, eta taldeak egin nahi izan zituen zuzenketa guztiek gainontzeko talde guztien ezetza jaso zuten. Batzordeetan azken hilabeteetan izandako argudioak entzun ahal izan ziren berriro ere, beraz.

Allik argudiatu zuen arazo juridikoa daudela nabariak lege honekin, eta Auzitegi Konstituzionalak errekurtsioa aurkez lezakeela hainbat artikuluren aurka, hain zuzen ere gainontze-

ko taldeek adostu zituzten haien kontra. Alli liberalizazio antolatuen alde agertu zen, baina hori Estatuaren eskumena zela adierazi zuen. «Arautzea Estatu osoan egin behar da, eta ez bakarrik Nafarroan». Bere erreparoa bidez ere botikak irekitzeko lizentziak ematerakoan Gobernuak izango duen boterea zela eta argudiatu zituen, eta baita geografikoki ere ez zelako oso ordenamendu logikoa bere ustetan. «Ez ditu Nafarroako ezauzgarriak errespetatzen, eta badirudi

Espainiako Gobernuak Nafarroan egin nahi duen esperimendua dela».

Gainontzeko taldeek nabarmendu zuten legearen alde onak, baina modu ezberdiez. Jose Javier Viñes UPNko parlamentarioak ukatu zuen Nafarroak gisa honetako legerik ezin duenik aurrera eramane, eta farmazia laguntzaren «profesionaltasuna» zekarrela esan zuen.

Gainontzeko taldeek azpimarratu nahi izan zuten ordea UPNren edo Cerveraren legea ez baino Parlamentuaren

legea zela, eta Elena Torres PSNko kideak gogoratu zuen ahapaldi osoak aldatu egin direla goitik behera. «Aldaketa hauen bidez gaur onartu behar dugun testua gizalegekoa da, bidezkoagoa eta zuzenagoa».

Felix Puyo EHko kideak ere adierazi zuen «lege ona» zela azkenean talde gehienaren artean adostutakoa, zerbitzuaren kalitatea bermatzen duena eta taldeen arteko kontsentsuaren fruitua izan dena. «Ojala izango zen beti horrela», gaineratu zuen.

egunegun

Soka luzeko eztabaida

Nafarroako Gobernuak farmazien arloa arautzeko asmoa iragarri zuenetik, polemika latza izan da profesionalen eta administrazioaren artean

Urtarrilaren 17a• Nafarroako Gobernuak onetsi zuen farmazia laguntzarako foru lege proiektua, atzo parlamentuak bideratu zuenaren oinarriak paratzen zituena. Farmazialarien Elkargoak harriduraz hartu zuen berria.

Apirilaren 15a• Farmazialarien Elkargoak kanpaina abiatu zuen Santiago Cervera Osasun kontseilariaren aurka, eta kartelak paratu zituen farmazietan.

Apirilaren 19a• Talde parlamentarioek lau osoko zuzenketa eta 193 partzial aurkeztu zituzten Gobernuaren egitasmoari. Oro har, legeak zeuden arazoak ez zituela konpontzen kritikak zen, nahiz eta onartu sektoreak erregularizazioa behar zuela.

Apirilaren 28a• Cerveraren aurkako bigarren kanpaina. Kritika ugari kontseilariari farmazialarien metodoak terroristenekin alderatzeagatik.

Ekainaren 24a• Elkargoak jakinarazi zion Osasunbideari zerbitzua emateko kontzertuaren baldintzak aldatu nahi zituela

Uztailaren 28a• Elkargoak jakinarazi zion Osasunbidearen zerbitzua emateko kontzertua salatu eta hautsi zuela.

Irailaren 27a• Bilera kontseilariaren eta elkargoko ordezkarien artean. Elkargoak azaldu zion Cerverari aztertzen ari zirela errezetaren prezio osoa kobratzea.

Urriaren 11• Farmazialariek erabaki zuten errezetaren prezio osoa kobratuko zutela.

Urriaren 13a• Parlamentuko Osasun Batzordeak adostu zituen foru legearen proiektuari egin beharreko aldaketak.

Urriaren 18a• Errezetak ez onartzeari ekin zitoten farmazialariek.

Urriaren 23a• Botikak ospitaleetan eta osasun etxeetan saltzea erabaki zuen Nafarroako Gobernuak.

Urriaren 27a• Epaileak behartuta, errezetak onartzen hasi ziren atzera botikariak.